

amestu dezagun elkarrekin

Jardunaldiak akta 2016-09-24

EMAKUMEEN ETXEAK ETA FEMINISMOAREN ERALDAKETAK

MARI LUZ ESTEBAN GALARZA

Bere hitzaldia bi zatitan banatu zuen. Alde batetik, euskal feminismoaren ezaugarriak eta eraldaketa; bestetik, emakumeen etxeak ematen dituzten aukerak zein erronkak.

Lehenengo atalari dagokionez, feminismoan gertatutako aldaketak ikusteko garaia dela adierazi zuen. Euskal feminismoa 1936. urtean Baionan hasi zela baieztatu zuen. Era berean, XX. mendeko euskal mugimendu feministen ezaugarri nagusiak azpimarratu zituen, alegia, mugimendu unitarioa zela, herritarra, antisistema eta berdinzalea. Gauzak horrela, oso profil desberdinetako emakumeak elkartzen ziren asanblada dinamika batean.

Gaur egungo feminismoa ere nahiko unitarioa dela esan zuen Mari Luzek, hala ere, asanbladak eta biltzeko gune zabalak galdu direla adierazi zuen. Gainera, mugimendu feministen barruan mota oso desberdinak daudela dio: unibertsitarioa eta instituzionala, batik bat. Era berean, "lobbyak" agertzen ari dira, estatugintza feminista sortu da eta iritzi feministak indarra hartu du (sare sozialen bidez eta idazten diren artikuluak direla medio). Beraz, feminismoa antisistema izatetik instituzionalizatzera pasa da eta indibidualizatu egin da.

Bigarren atalean emakumeen etxeen erronkez eta ahalmenez hitz egin zuen ezaugarri hauek azpimarratuz:

1. Harreman zabalak eta anitzagoak sortzeko aukera eskaintzen dute. Horien artean, azpimarratzen dira, besteak beste, partaideen artean zaharrak eta gazteak, migratuak eta bertan jaiotakoak, elkarteetan ez daudenak, unibertsitate tituludunak eta titulurik gabeak, etab. Halaber, teknikariak eta profesionalizatu gabeko emakumeak egongo dira.
2. Eztabaida zabalerako gune aproposak dira.
3. Beste ezagutza feminista sortzeko aproposak dira, teoria zein praktika uztartzeko lekuak.
4. Emakumeen etxeak politika egiteko lekuak izan behar dira. Estrategiak pentsatzeko, negoziatzeko, bizitzan txertatzeko…



5. Zer nolako politika feminista egiten da instituziotik eta nola uztartzen da mugimendu feministarekin?
6. Itun feminista berria behar dugu: euskal herrian feminismoa batuta egotea euskal gatazkaren inguruan ez hitz egitearen kontu lortu da. Hori guztia errebisatu beharra dago. Alegia, gune feministak berritzea eta emakumeen etxeak Euskal Herriko gatazkaz eta egoera soziopolitikoaz hitz egiteko lekuak izateko aukerak aztertu behar dira.
7. Beste erronka: hizkuntza eta kulturen arteko topagunea izatea, hizkuntza aniztasuna sustatzea. Euskarazko komunikabideetan kritika feministak nahikoa presentzia dauka, eta baikorra izateko modukoa da. Baina gaztelerazko komunikabideetan egoera ez da bera, eta argitu behar dugu euskaraz ari den feminismotik harago badagoela feminismoa Euskal Herrian.
8. Erronka: teoria eta praktika uztartu behar dira. Praktikari gero eta denbora gutxiago eskaintzen diogu, asko berriz formakuntza, eztabaida…
9. Erronka: Profesionalizazioari dagokionez, onura handiena feminismoari zilegitasuna ematen diola da. Arriskua, aldiz, helburua lanpostua mantentzea izatea da eta ez politika feminista egitea.
10. Azken erronka, gizonekin zer egin behar den pentsatzea, zer da, aukera edo erronka?

GALDERA ERANTZUNETARAKO TARTEA

a) Lehenengo galderan emakumeen etxea izenarekin zalantzak adierazi ziren, feminismoa ez baita emakumeen gauza bakarrik.

   i) Erantzuna: izena mantentzea historiari heltzea da, emakumeen espazio propioa dela adierazteak esanahi sinboliko handia baitu. Dena den, maiz emakumeen etxeei izen propioa jartzen zaie, adibidez, Basauriko emakumeen etxeari Marienea deitzen zaio. Espazio edo Etxe Feminista deitzea ere egokia litzake.

b) Zer esanahi du itun berria sortu behar dela? (9. erronkari erreferentzia egiten dio)

   i) Erantzuna: Eztabaida erritualizatu behar dela, hitz egin behar da euskal feministek gizartea irudikatzeko moduez. Esaterako, Emaguneko partaideak emakumeak euskal gatazkan duten paperaz hitz egiteko batu dira.

c) Instituzioen eta herritarren arteko erlazioaren inguruko kezka.

   i) Erantzuna: Erabakiak ezin dira utzi profesionalen esku, prozesu parte hartzaileak izan behar dira, kaleko feministei galdetu behar zaie. Askotan berdintasun teknikariek ideia mordoa dute, baina agian herritarrak ez daude erritmo berean edo aldrebes. Era berean, mugimendu feministak iraultzaileak izan arren, instituzionalak dira ere, baina instituzioetan jende gehiegi sartzen bada mugimenduak zein elkarteak husten dira.

ESPERIENTZIAK

ERMUA: ZAIDA FERNANDEZ PEREZ

Zer da Ermuako Emakumeen etxea?

Batetik, Gela Propioa da hiriko paisaian, espazio fisikoari aipamen eginez.

"Emakumeen Etxeak Virginia Woolfen "gela propioaren" gauzatze kolektiboa dira. Izan ere, Woolf feministak, XX.mendearen hasieran, emakumeentzako ondasun materiala aldarrikatzen zuen, independentzia intelektuala ahalbideratzeko"

Emakumeentzako eta feminismoarentzako gune propioak sortzea justiziaren historia da, askatasun nahia.

Zertarako?

Emakumeen partaidetza areagotzeko eta sustatzeko bizitza publikoan, esparru eta eremu ezberdinen baitan.

Nolakoa da? Zeintzuk dira bere ezaugarri nagusiak?

Irekia, dinamikoa, anitza, aberasgarria eta feminista da.

Azken adiera oso bat azpimarratu du sarrera gisan Zaidak, esanez, bere garapen pertsonalerako eta politikorako gunea izan dela: *"Niretzat nire espazio propioa da. Espazio horretan hazi naiz feminista bezala eta jauzia egin dut emakumeen topalekutik feminismora. Horregatik azpimarratu nahi dut ez dela gune funtzionala soilik, baizik eta emozioz beterikoa ere badela."*

Zein izan da herriko emakume borroka eta feminismoaren historia?

*1987an, agertu zen lehenengo aldiz gune baten eskaera eta aldarrikapena "Emakume Hautagaien Zerrendan". Garai hartako eskakizuna emakumea etxeko lau paretetako isolamendutik eta bakardadetik ateratzeko aldarrikapenean oinarritzen zen, proiektu fisiko baten bidez ase nahi zelarik.

*1988an, sortu zen arretarako bulegoa eta babes etxea. Horren sorrera presio handia egin ondoren lortu zen.

*1995an, Emakumeen ikasgela, emakumeen topalekua sortu zen.

*1996an, Udal egituran Berdintasun Saila sortu zen, eta horrekin batera Berdintasun Kontseilua. Azpimarratzekoa da 1994eko hiri antolamenduan jada

kontuan hartu zela gunea. Urte horietan oso estrategikoak izan ziren Kontseiluak instituzioetan politika publikoetan genero ikuspegia txertatzeko.

*2003an, Emakumearen Topalekua izenarekin jarri zen martxan gunea. Oso garrantzitsua da izenaren gaia. Lehenik emakumeen etxea bultzatzen zen.

Ondoren, etxelila, edo bestelako kontzepturen batekin lotu nahi izan da (Ondarroa kaso). Izendapenaren mugak gainditu nahi izan dira izendapenekin.

*2013an ospatu zen 10. urteurrena. Horretan, ezaugarri batzuk azpimarratu nahi izan dira: emakume aniztasuna herrian, guztiekiko elkartasuna eta bizitza kolektiboa.

-Zein da egitura politiko/insttituzionala? Zerbitzuak?

Berdintasun Sailak egitura eta sail propioa du Udal administrazioaren baitan, baita zinegotzi arduraduna ere. Informaziorako, sentsibilizaziorako nahiz zabalkunderako zerbitzuak eskaintzen dira bertatik.

Arreta Zerbitzua da egituratuena eta definituena: bertan lege aholkularitza eskaintzen da, etxeko langileen zerbitzua, nahiz arreta psikologikoa; horrez gain, Jabekuntza Eskola ere badago; Sustapena eta elkartegintzarako aholkularitza ere eskaintzen da; Liburutegi espezializatua dago eta erakusketa espezializatua ere.

Hori guztia espazio fisiko batekin lotzen da.

KUDEAKETAri dagokionez, Udal zerbitzua da, Berdintasun sailean kokatzen dena, eta diru publikoz finantzatua. Oso eztabaidagarria da finantzazioa ere, ea erabat publikoa izan behar ote den.

Hiru langilez osatzen da Departamendua. Horietatik 2 azpikontratatuak, prekarioak, e.a.

ERRONKAK/HUTSUNEAK: Etxea baliabidea da, ez da helburua. Etxeak edo gune fisikoak ez dute helburu bilakatu behar, askotan nahastu egiten ditugu.

LORPENA: "Ni neu", gerturatu zen pertsona, politizatu dena feminismoan eta teknikoki ere kokatu dena. Nire ustez espazio hauek erreferentzia izan behar dute, eta ez elkargune soilak. Erreferentziak feminismorantz; feminismoa esperimentatu behar da; ez du emakumeen lokal soila izan behar; leihoak eta ateak irekiak izan behar dituen gune konektatua izan behar du.

ARRASATE: AMETS BELTRAN DE GEBARA AREXOLALEIBA eta ESTHER LIZARRALDE MENDIZABAL

Arrasateko Emakume Txokoak oinarrian bi kontzeptu ditu txokoaren helburuak eta izaera ere adierazten dituenak: JABETU/ERAGIN.

Zer da Arrasateko Emakume Txokoa?

Arrasate feminismotik eraldatzeko tresna eta gunea da. Berdintasun Saileko zerbitzua da. Administrazioari darion kutsu hotz eta ilunetik aldentzeko ekimenak berrikusten ditu aldiro.

Erabiltzaileei galdetuta, honako erantzunak jaso dira: ausardia eta freskotasuna eskaintzen duen gunea; harremanak eta garapen pertsonala lantzeko gunea; topalekua; ahalduntzerako gunea

Guneak emakumeentzako erreferentzia gunea izatea bilatzen du, eta hortik du izatea.

Nahiz udal zerbitzua izan, izaera eta esentzia propioa du. Estetika ere propioa, eta tratua ere berezkoa da.

SORRERA:

2003. Urtearen bueltan Arrasaten mugimendu feminista fuertea zegoen, eta handik atera zen espazio propioaren ideia: elkartzeko, eta borrokatzeko espazioaren beharra adostu zen. Udalak bat egin zuen orduko hausnarketa eta aldarrikapenarekin eta Berdintasun Sailetik apustua egin zen. Horrela kokaturik ere, azpimarratu behar da dexente zaindu dela mugimendu feministaren espazioari errespetua, eta beti Udalak zaindu nahi izan duela espazio hori ez xurgatzea. Guk, esan bezala, baliabideak eskaini dizkiogu mugimendu feministari. Horretan, mugimendu feministaren gainbehera ere gertatu da, eta hor ere, bere protagonismoa, elkarlana eta errespetua zaindu da beti.



ZERBITZUAK:

Udalak apustu serioa egin izan du, aurrekontu propioarekin. Gaur egun 2 teknikari daude, Berdintasun teknikaria eta Emakume Txokoko dinamizatzailea, nahiz eta txokoaren dinamizazioaz gain, gai orokorragoak ere kudeatzen dituzten.

-Ez da txokoaren barruko dinamizazio soila. Kalean ere eragin nahi da eta eragiten da.

-Hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, erakusketak, aholkularitza juridikoak…Beti lehentasuna delarik laguntzea mugimendu herrikoiak bere ekimenak aurrera atera ditzan.

-Aurrera atera ezin izan dugun plana, partaidetza soziopolitikoarena izan da. Indarkeriaren plana momentuz ez da atera. Gobernu aldaketek asko eragiten dute horrelakoetan.

-FISIKOKI, erdialdetik gertu dago gunea, eta aldi berean ezkutuan. Bulegoan bi teknikari daude. 2 bilera gela eskaintzen dira (pertsona nahiz taldeentzako); sukalde txikia, 2 gela handi formazio ikastaroak e.a. lantzeko.

-Giltzak talde ezberdinek ere badituzte, ez soilik udal teknikari eta ordezkariok.

KUDEAKETA zuzena eta publikoa da. Gune irekia da erabilerarako eta partaidetzarako, baina kudeaketa zuzena eta publikoa da.

ARRAKASTAK: lortu du emakume pila gerturatzea eta ibiltzea bertan. Oso anitza da erabilera eta erabiltzaileak ere (adinez eta formazioa, ez jatorriz). Lortu du eragile bilakaera, emakumeak txokora gerturatzen dira, eta PH gunea izatea ere lortu du. Lortu du gazteengana ere iristea. Horretan, loralditxoa sumatzen da, Mundu martxaren bueltan eta guk ahal izan dugu hori suertatzen. Emakumeen ahalduntze intelektual eta profesional kolektiborako gune erreferentziala izan da. Gune erreferentziala militantzian eragiteko. Eskola feminista, eta jabetze eskola…

ZAILTASUNAK: Erronka handia da jatorri aniztasuneko emakumeentzat ere bihurtzea erreferentzia. Migratuen mundua ez da gerturatzen, ez da deitua sentitzen, agian haiek haien propioa behar dute?

Bestalde, ez dago emakume mahai edo kontseilu formalik. Gizonezkoak feminismora eta borroka feministetara erakartzea ere erronka da, hausnarketa eta prozesu pertsonaletik kolektibora.

MARIENEA-BASAURI: MARI LUZ ESTEBAN GALARZA

Historia: 1995etik bueltaka zebilen ideia zen. Orduan, 10 bat lagun lanean ibili ziren ideiaren bueltan: batzuk proiektuan, besteak lan taldeetan…

-Erdigunetik gertu dago eta pixka bat aparte ere. Fisikoki oso etxe handia da. Zerbitzuak eta eskaintza asko eskaintzen ditu, gehiegi agian.

Funtzionamendua: funtzionamenduaren eskeman esperientzia asko izan dira. Marienea elkartea modu "alegal" batean. Talde motorea izendatu zen 10-14 lagun, erdiak talde feministetatik+langileak+pertsona solte batzuk. Pertsona soltetan ez da iraunkortasun gehiegi.

-Marienea elkartea izendatu zen, eta ez emakume etxea.

-Tirabirak izan dira askotan, maitasunetik baina tirabirak izan dira eta esanguratsuak.

-Funtzionamendu "alegalean" araudia sortu zen. Hor gako indartsua izan zen: kontrolatu nahi zen parte hartze araudirik gabe. Azpimarratu behar da botere alegal horretatik gauza asko lortu direla.

-Belaunaldien artean, zer gertatzen ari da? Eskola ezberdinetako feministak gara, eta horiek komunikatzen asmatzea erronka.

ARRAKASTEI dagokionez, etxea bera da arrakasta. Horren harira eta horren bueltan, elkarte asko sortu dira, eta hori azpimarratzekoa da. Zerbitzu garrantzitsu bat: "Zure Ondoan" zerbitzua, banatzeko bidean daudenei arreta.

HUTSUNEEI dagokionez, gazteak soilik bezero moduan gerturatu izan dira bertara. Instituzionala izatearen ondorioa ote den…

ERRONKAK: Nola integratu feminismoaren ikuspegi ezberdinak? Nola osatu "osotasuna"? Nola lortu gizonak feminismora gerturatzea? Emakumeak kultura hartzaileak dira batikpat, deskonpentsatua da egoera eremu ezberdinetan: politikan, aisialdi eskaintzan, kulturan, ekintza politikoagoetan… Desoreka hori aztertu eta eremu espezializatuen gaia landu behar da. Marienea berripapera ere erronka handia da.



PARTAIDEEN GALDERA-ERANTZUNAK:

Gizon/emakume harremana arazo gisan azaltzen da:

- Arrasaten, Emakumeei zuzendutako Jabetze Eskolak antolatzen dira. Gizonen kasuan, ikastaro puntual batzuk antolatu izan dira, edo bestelako ekimenak. Baina Jabetze Eskoletako ikastaroak emakumeentzat dira soilik;
- Ermuan "Zipristintzen" gizon taldea dago martxan (gehienak asanbladakoen "bikotekideak"). Zipristintzen taldean zalantzan jartzen dute haien "gizon pribilegioa", zalantzean jarri gizon perspektibatik.
- Igual beste eskola propioaren beharra dago gizonentzako?
- Marienean ikastaro mistoak ere egin dira, proiekturen batean mutilak ere egon dira bertan.
- Interesgarria da horretaz eztabaidatzea, gizon/emakume partaidetza feminismoan. Jende guztia ez dago ados.
- Gizonak bere pribilegioak zalantzan jartzea ongi, baina "biktimismotik" egitea zalantzakorra.

Emakume migranteen gaiari daogkionez, Arrasatetik diote gabezi handia zian dutela gaiaren inguruan, ez daude txokoan, ez eskolan…" lagundu dugu haien inbisibilizazioan"

- Ermuaren kasuan, bada kontseilu bat kooperazio eta berdintasunaren ingurukoa, eta bertan parte hartzen dute.
- Jatorri aniztasuna ez dago erabakiguneetan eta garrantzitsua da jatorri aniztasuna erabaki guneetan egotea.
- Aurreko interbentzioen harira gogoeta bat: nolako feminismoaz hitz egiten ari gara? Txuria eta bertakoaz? Gure ahotsa norbaitek eramaten du beti, eta gure aulki propioa behar dugu.
- Basaurin ez badaude ez dutelako nahi izan da, erabaki dute ez egotea.

Ze garrantzia du espazio publikoa izateak? Nola okupatzen dugu espazioa…kalea?

- Txokoak eta etxeak lagundu dute pertsonak eraldatzen, Jabetze pertsonaletik kolektibora nola igaro? Hor dago gakoa eta hausnartu beharra horri buruz. Ez da esan nahi ez denik lortzen, lortzen da, baina saltoa egoten da, ez dira egoera linealak ezta prozesu linealak ere ez.
- Zentzu horretan, Ermuan, "berdintasunaren pasealekua" izendatu da, ekintza sinboliko garrantzitsua da kalearen espazioa ere emakumeei aitortzeko.

Kudeaketari dagokionez, nola egituratzen da partaidetza?

- Ez dago eredurik. Momentu honetan modu informalagoan gertatzen da gero egituratzeko. Nola zabaldu militanteak ere sortu dituen espazio hauetan.
- Hernaniren kasuan, elkarlana badago jatorri ezberdinetako emakumeen artean. Elkarrekin lan egiteko saltoa emateko unea da jada, Hernanin erronka da koliderazgotik erabakiguneetara pasatzea, eta esperimentatzea zentzu horretan.

BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN TXANGO HISTORIKOA:



Txango historikoaren tailerra, Hernanin azken 15 urteetan Berdintasunaren aldeko mugimenduak eta mugimendu feministak izan duen ibilbidea aurkeztu eta ikusarazteko saioa izango da. Espazioak berak sor ditzakeen oztopoengatik eta bertaratuko diren herritar kopurua ezagutzeko aukerarik ez dugunez, azkenean ez du tailer formatua izango saioak.

Aurkezpen dinamiko bat izango da. Horretarako, txangoa aurkeztuko duten 4 herritar izango ditugu, bakoitzak adar bat aurkeztuz. Horrez gain, Hiritik At-eko bi lagunen eskutik, aurkezpena bera formatu bisual batean osatzen joango gara bertan, momentuan.

4 adar nagusiak honakoak izango dira:

MUGIMENDU FEMINISTA eta EMAKUME TALDEAK:

- ✓ Hernanin hainbat mugimendu/talde izan dira berdintasunaren aldeko –feminismoaren inguruko lanean jardun dutenak, elkarte ofizial edo erregistratu bezala egon ez badira ere.

- ✓ **Egizan:** Hernanin, gure memoria hurbilean ezagutzen dugun lehendabiziko elkarteetakoa dugu hau. (urtea zehaztea falta?)

- ✓ **Berdintasun Kontseilua**: 2001an sortu zen gune hau. Momentu horretan sortu berri zen Berdintasun arloaren lehendabiziko urratsetakoa izan zen. Harrezkero, Berdintasun arloaren lan ildo eta erronka nagusien definizio eta jarraipenean bidelagun izan dira.



- ✓ **Herne**: 2005 urte inguruan sortu zen neska gazteen taldea dugu. "Gure burua askatuz, feminismoan murgilduz" kanpainiarekin hasiera eman zioten euren jardunari. Hasiera batean, edozein emakumek egoera anitzen aurrean sentitzen genituen sentsazio eta inpresioak ziren hizketaldien gai nagusi, eta ohartu ginen sentsazio eta sentimendu horiek ez zirela kasualitatea, behin eta berriz errepikatzen baitziren. Honela, gai guzti horiek eta errealitate ixildu hori plazaratzeko eta lantzeko beharra ikusi genuen. Honela hasi zen HERNE Neska Taldearen ibilbidea. Hainbat urteko jarduna izan zuen, eta Institutuan antolatutako ekimenez gain, aipatzekoa da bere momentuan Hernek, Hernaniko udalaren eta berdintasun kontseiluarekin batera antolatutako "Ikusezina ikusten ikasten" jardunaldiak.

- ✓ **Hernaniko Bilgune Feminista:** 2009an sortu zen Hernaniko Txoko feminista taldea, gerora Bilgunearen izena bereganatu zuena. Azken 7 urte hauetan, herri mailan, Berdintasun Kontseiluarekin batera eragile feminista ezaguna izan da. Besteak beste,

- ✓ **Katxazarra**

- ✓ **Liletak**: Hernaniko institutuko batxilerreko ikaslez osaturiko talde bat dira Liletak. Berdintasunean dugu oinarria eta gai hau aktiboki lantzen dugu. Gure helburua denok begi berdinez begiratuak eta modu berdinean ikusiak izatea da, hau da, garen bezala ikustea besterik ez, BERDINAK.
  Aipatzekoak, eta ikustekoak, besteak beste, gazte talde honek egindako bi ekimen: #Bilioi bat besarkada, eta pasatako azken Azaroaren 25erako sortutako bideoa.
  Ilunetik argira: https://www.youtube.com/watch?v=raAvPSWpHq4

- ✓ **Parekide**: Institutuan bertan sortutako beste taldetxoa da. Hauek ere, talde eragile moduan, egun jakinetara bideratutako kanpaina eta ekimenak antolatu ohi dituzte.

- ✓ **Islad**a: Martxoaren 8aren testuinguruan Hernaniko institutuko ikasle batzuk sortutako taldea dugu Islada. Bideo honen bidez, Hernaniko hainbat emakumek besteak beste, enplegua, zaintza, familia feminismoa eta gizarte eraldaketarako erronken inguruan dituzten bizipenak biltzen dituzte.
  https://www.youtube.com/watch?v=DTiVTRyoTk8

- ✓ **Izan Gizon**: Azken urtetan emakume eta gizonezkoen rolak zalantzan jarri dituzten gizon-taldeak sortu dira han hemenka, gizonezkoek sexismoarekiko duten zeregina eta berdintasunezkoak diren harremanak aldarrikatzen dituztenak.
  Hernanin 2006. urtean "Izan gizon: egin aurre sexismoari" tailerra jarri zen martxan. Tailer honen helburuak hauek ziren: (1)Eredu maskulino tradizionala eztabaidatzea eta eredu horrek gizonezko zein emakumezkoentzat dituen ondorioak aztertzea. (2)Gizonezkoek sexismoaren barruan eta sexismoari aurre egiterakoan duten zereginari buruz hausnartzea. (3)Harreman igualitarioagoak, bai euren artean eta baita emakumeekiko ere, nahi dituzten gizonen arteko elkartrukaketarako esparrua eskaintzea.Tailer honen ondotik gizon talde bat ere sortu zen

herrian. Harrezkero, gorabeherak tarteko, hilean behin biltzeko maiztasuna izan dute.

- ✓ **Amherreko Emakumeen taldea:** Amher elkarte multikulturalaren baitan, Berdintasunari eta jatorri aniztasunari buruz elkarrengandik ikasiko espazioa da. Batzen eta aberasten gaituena trukatu, eta hemengo eta hango emakumeen Eskubideak ezagutzeko. Badira dagoeneko XX urte biltzen hasi zirenetik, eta harrezkero hileroko maiztasunez biltzen joan izan dira.

- ✓ **Abortu Eskubidearen aldeko asanblada:** Rajoy-ren azken legegintzaldian, Abortu Eskubidea bermatzen zuen legearen inguruko erreformak iritsi ziren. Momentu hartan, Hernaniko hainbat eragileren deialdiari jarraituz, Euskal Herri mailan antolatutako ekimen eta deialdi ezberdinak Hernanin garatzeko, eta jarraipena egiteko asmoarekin, talde anitz bat sortu zen.

- ✓ **Emakumeen Mundu Martxako Asanblada**: 1995ean, Quebec-eko emakume-mugimenduak martxa bat egin zuen, Ogiaren eta Larrosen Martxa, eta 15.000 pertsonak egin zuten bat horrekin, hamar egunez. Babesa ez zen soilik bertako jendearengandik etorri; aitzitik, martxak eragin handia izan zuen nazioartean. Hori dela eta, 2000. urtean martxa modu zabalean deitzea erabaki zen, mundu-mailan, demokrazia, itxaropena, berdintasuna eta bakea aldarrikatzeko. Hainbat herrialdetako milaka emakume mobilizatu ziren, honako lau ekintza-eremu hauen barruan ezarritako eskakizun eta proposamenen harira: 1.- Guztion ongizatea eta elikadura-burujabetza; 2.- Bakea eta desmilitarizazioa; 3.- emakumeen lan ikusgarria eta ikusezina; 4.- emakumeen kontrako indarkeria, horien gorputzak, bizitza eta sexualitatea kontrolatzeko tresna modura.
  Martxa 2015eko urriaren 1ean pasa zen Hernanitik. Karabanari harrera egin eta egitaraua antolatzeko, herriko eragile eta norbanako ugari bilduz lanerako.

- ✓ **Kalandria:** Tabakalerako "Komanditario Berriak" egitasmoa aurrera eramateko espreski sortutako taldea dugu Kalandria. Egitasmo honen helburua izan da, andre kalea izenaren berreskuratzetik abiatuta, artelan baten bidez hausnarketa bat bultzatzea emakumeek espazio publikoan duten irudia eta presentziaren inguruan. . Zer galtzen du herri batek emakumeen presentzia publikoa ezabatu edo ezkutatzen duenean? Prozesu honen emaitza, Sra Polaroika artistek egindako eta gaur arratsaldean aurkeztuko den "andrekale" ikus-entzunezkoa eta kalean jarriko den "aztarna" izango dira.

- ✓ Eragile anitz dira hauek, baina hauez gain, aipatzekoak dira, besteak beste, Asanblada eta egun konkretuak antolatzeko deialdietan, **Duintasuna** Gipuzkoako Pentsionisten elkartea mugimendu feministarekin aritu dela lanean etengabe. Elkarte honetaz gain, **Hernaniko gazte asanblada**ko gazteak eta **Ernai** gazte antolakundeko kideak ere bai.



ESPAZIOAREN INGURUKO HAUSNARKETA:

- ✓ **Hiri Debekatuaren Mapa**: Hernaniko Udalak bultzatuta, Berdintasun Kontseiluak sortu eta emakumeentzako hiri debekatuaren mapa hartzen du programaren oinarri. Azterketa bat egin da, segurtasunik eza eta beste hainbat irizpide kontuan hartuta:mugikortasun osoa, ez bakarrik fisikoa, baita zentzumenei eta pertzepzioari dagokiena ere.pertsona ororen autonomia bermatu, eremu publikoetako segurtasuna eta horietara iristeko erraztasunak ziurtatuz.gizarteratzea, eremu publikoek pertsonen arteko harremanetan duten garrantziari buruz hausnartuz eta nabarmenduz.bizimodu osasuntsu, segurua eta atsegina egiteko ingurua egokitzea.Herriko ikastetxeetako 2. eta 3. DBHko ikasleekin egin da mapa, guztira 300 lagun inguru.Hainbat tailer eta dinamika bultzatu dira irakasleen eta herriko prentsaren laguntzarekin. Lortutako emaitzak emakume-taldeekin egiaztatu dira tailerretan, eta seguruak ez ziren herriko puntuak ere identifikatu dituzte. Ondoren aipatzen diren tailer eta ekimenekin osatu da prozesu guztia

- ✓ **Andrekalea**: "Andrekalea" 1896- 1900 urte bitartean izen ofizial izan zen Hernanin "Urumea" izenarekin batera. Ondoren Urumea izena jartzea adostu zen, eta azkenik 1927an "Padre Cardaveraz" izena eman zitzaion kaleari. Hernaniko Berdintasun Kontseiluak urteak eman ditu "Andrekale" izena errekuperatze lanetan. Hernaniko kale eta plaza izendegia ere aztertu da eta hauxe ondorioa: 80 kale eta plazetatik, gizon izena duten 24 kale eta plaza daude (pertsona zehatzak, izen abizen propioekin). Aldiz, 5 kale eta plazek dute izen femenino bat, elizarekin lotuak denak (ez dute emakume izen konkreturik, denak amabirjinak edota santak dira). Erreferentzia gisa erabiltzen ditugun neurrian, kale eta plaza hauen garrantzia ukaezina da; nolabait "garrantzitsutzat jotzen ditugunen" isla baitira, eta sinbolikoki ere garrantzia hartzen dute. Teresa del Valle antropologoak kale izendegia eta memoriaren garrantzia azpimarratzen ditu. Bere aburuz: "Memoria da gizarte batek garrantzitsu jotzen duena eta datozen belaunaldiei transmititu nahi diena; kale zienak, monumentuak eta artearen errepresentazioak hiri batean oso garrantzitsuak dira memoria sortzen dutelako eta adierazten dutelako gizarte batzuk garrantzitsu jotzen dituenak". Hori dela eta, Berdintasun Kontseilutik ezinbestekotzat jo izan da, "Andrekale" izenaren berreskuratzea, izen aldaketa honekin emakumeek Hernaniko herrian izan duten presentzia aitortu eta hauei merezitako aitortza egiten zaiolako, eta nolabait, orain arte egindako injustiziarekin bukatzeko bidea jartzen duelako. 2014ko uztailean onartu zuen Udalbatzak aho batez, izen aldaketa eta kalearen inaugurazioa 2015eko otsailaren 21ean egin zen.

- ✓ **Plaza Feminista**: Plaza feminista Aristizabal kalean kokatuta dagoen udal eraikina da. Bi espazio bereizgarri ditu: batean, berdintasun teknikariak daude. Bertan, Udal Berdintasun, Kulturartekotasun eta Lankidetza Arloak kokatzen dira. Eta bestea berdintasunaren alde eta ikuspegi feminista batetik, herrian lan egiten duten hainbat eragilek erabiltzen dute euren jarduera eta ekimenetarako. Besteak beste, Berdintasun Kontseiluak, Bilgune Feministak, Gizon Taldeak, Plax! gazteentzako aholkularitza zerbitzuak, Emakumeentzako Jabetze Eskolak…Hain zuzen ere, plaza



feministak, ildo honetan jarduten duen mugimendu ororen erdigune izan nahi du, gai hauetan erreferentzia puntu bilakatuz eta elkarren arteko sareak osatzeko aukera emanaz. Hernanin aspalditik zegoen horrelako espazio propio bat izatearen beharra; honen harira, espazio hau jabetzeko balioko duen tresna izatea nahi dugu, gune politiko bat bilakatuz: aliantzak konpartitzeko, espazioa komunean jartzeko eta esperientziak partekatzeko gunea.

- ✓ **Emakume Etxea**

- ✓ **Leoka:** Antzina emakumeen topaleku, lan leku eta kontu toki izan zenean, berriro emakumeei eman zaie protagonismoa, Leoka emakumeentzako berreskuratuz. Bertan egiten da Hernaniko Jabetze Eskolen ikasturtearen hasiera ekitaldia. Modu honetan, Hernani eta inguruko emakume artisten lana ezagutu eta gozatzeko aukera izan ohi dugu urtero.

- ✓ **Berdintasunezko jolastokia:** 2003 urtean ikastetxe guztietan hezkidetza programa bat jarri zen martxan. Bertan ikasleekin eskola orduetan hezkidetza lantzeaz gain, irakasle eta senideek ere egin zen lan. Hurrengo ikasturtean Langile ikastetxearen lehen eta bigarren hezkuntzako zentruak hezkidetza eta espazioaren inguruko ikerketa batean parte hartzera animatu ziren. Ikerketa horretan espazioari dagokionez ikasleek hainbat aldaketa proposatu zituzten. Horietako batzuk aurrera eraman ziren, espazio aldetik hainbat hobekuntza eginez. Ikerketa horretan ateratako hainbat ondoriok gida bat sortzeko ideia ekarri zuten. Hala sortu zen "Berdintasuneko Jolastokia: hezkidetzaren eta espazioaren gaineko baliabideen gida".

- ✓ **San Joanetako Bilgune Feministaren txosna**

ARLO INSTITUZIONALA

- ✓ **Berdintasun Sailaren sorrera** Berdintasun teknikaria: 2001eko apirila. Lehen lana, berdintasun arloan interesa eta lan egiteko gogoa zuten herritarren parte hartze organoa martxan jartzea izan zen. Hala arloa sortu eta hilabetera hasi zen Berdintasun Kontseilua martxan. Izatez organu ahokularia izan arren, ordutik, hilero bilduz, bertan parte hartzen duten emakume zein gizonek proposatutako ekimen eta egitasmoak Berdintasun Arloak bere gain hartu izan ditu eta martxan jarri. Hala izanda, urte guzti hauetan udal Berdintasun Arloak egindako lana ez zen posible izango emakume eta gizon hauen borondatezko lan eta parte hartzerik gabe.

- ✓ **Bigarren teknikariaren kontratazioa-plaza**

- ✓ **I Berdintasun Plana**

- ✓ **II Berdintasun Plana**: Hernaniko Udalbatzarrak 2010eko otsailaren 23an onartu zuen Hernaniko II. Udal Berdintasun Plana (2010-2014). Aurrez egoeraren diagnostikoa egin zen.



- ✓ **Jabetze Eskolak**: Jabetzeak gure bizitzan autonomia izatea dakar, bizitzari aurre egiteko indarra eta konfidantza izatea, bizitzan aukera ezberdinak egiteko ahalmena izatea eta gizarte eraldaketan parte hartzea.Emakume bat jabetuta dagoela esaten dugu ahalmen horiek bizi-indar bilakatzen direnean, pertsona horren izaera osatzen dutenean. Horregatik, jabetzea prozesu pertsonala da, norberari gertatzen zaion zerbait. Inork ezin du beste inor jabetu. Hala ere, erakundeek emakumeen eta emakume taldeen jabetze prozesuak sustatu ditzakete ditzakete. Horixe da Hernaniko Jabetze Eskolak duen asmoa.
  Jabetze Eskolak antolatzeko ideia ertamerikatik hartua da. Gure inguruan Bizkaian sortu zuten lehena 2003an, Basauri, Ondarru, Ermua eta Getxoko Udal Berdintasun Arloek sortu zuten elkarlanean. Bertan izandako harrera eta emaitzak ikusita, Gipuzkoan 2006an hainbat udalerriren artean haiek hasitako bideari jarraitzea erabaki genuen. Momentu honetan Arrasate, Eibar, Azpeitia eta Hernaniko Jabetze Eskolak sarean ari gara lanean, nahiz eta udalerri bakoitzean ikastaro eskaintza propio bat izan.

- ✓ **Harremonak:** Helburua, tratu onak, parekidetasuna eta sexuen aniztasuna sustatzea da. Hernani tratu onen herria, herri hezkidetzailea: Lan ildo nagusiak formazioa/sentsibilizazioa, aholkularitza eta saretzea dira. Ikastetxetan saioak ematetik haratago ikastetxea bera tratu onen jakuzzian murgiltzea dugu helburu. Horretarako gakoa, hezkidetza-parekidetasuna-aniztasuna landuko duten talde eragileak sustatzea da.

- ✓ **Kirol Plana**: 2007. urtean Hernanin Kirol arloan emakume eta gizonen egoera zein zen jakiteko ikerketa bat egin zen Udal Berdintasun Arloa eta Kirol Patronatuaren artean. Ikerketa horretan hainbat aspektutan hobetu zitekeela ikusi zenez, ondoren egoera hobetzeko plan egin eta onartu zen.

- ✓ **Sexu eta bikote aholkularitza:** Gizon eta emakumeek, bakarka edo konpainian, sexu eta bikote zailtasunak izaten dituzte bizitzako garai

  desberdinetan. Horiei irtenbideak emateko, jakin-minari erantzuteko eta genero estereotipoetan oinarritutako harreman sexualak gainditzeko, Hernaniko Udalak eskura jarri du aholkularitza gune profesionala, konfidentziala eta doakoa, osasun zentroen zerbitzu osagarri gisa

- ✓ **Ikerketa bekak**: memoria historikoaren berreskurapena: Historiako liburuei begiratuz gero ez dirudi emakumeok biztanleriaren erdia izan garenik. Emakumeek arlo sozial, ekonomiko eta politikoan egindako egindako ekarpena ezagutuz, bere lana ikustarazteko lan izugarria dago egiteko. Hernaniko Berdintasun Arloak eta Berdintasun Kontseiluak Hernani mailan urrats batzuk eman nahi izan ditu, hainbat ikerketa bekarako deialdia eginez. 3 beka garatu dira dagoeneko, emaitzak hiru ikerketa lan mardul hauek izan dira: (1) LA HISTORIA IGNORADA, Una visión sobre el papel de las mujeres en la vida pública de Hernani; (2) GANBARAKO AHOTSAK. Hernaniko historian emakumeek eginiko ekarpenak (1936-1970); (3) Ilunpetik argitara. Emakume langileak iruditan. Hernani 1939-1975. Une honetan martxan dago 4. ikerketa beka; "Emakume hernaniarrak plazara!"



- ✓ **Haurdunaldi tailerra**: Udal Berdintasun Sailak eta Berdintasun Kontseiluak azken urtetan haurdunaldiaren bizipena egoera berean dauden beste emakume eta gizon batzuekin partekatzeko ikastaroa antolatu du. Esperientzia hau besteekin konpartitzea, datorrenerako prestatzea eta jai berriaren inguruko ardurak hasiera hasieratik bikote edo ingurukoekin elkarbanatzea du helburu ikastaro honek.

- ✓ **Hernaniko Emakume Kirolariak dokumentala**: Jarduera Fisikoa eta Kirol Sailak bultzatu du dokumentala, Berdintasun arloarekin elkarlanean. Herriko emakumeak dira dokumentalaren protagonistak eta helburua da "emakumeok jarduera fisikoarekin eta kirolarekin dugun harremana ikustaraztea. Bost emakume agertzen dira 13 minutuko dokumental honetan, hainbat adin eta profilekoak, eta bakoitzak bere esperientziaren berri eman du. Jendarteak jartzen dizkigun oztopo guztien gainetik, ehunka emakume gara Hernanin kirola eta jarduera fisikoa egiten dugunak. Emakume horientzako eta emakume horien omenez egin da bideo hau.

INDARKERIA SEXISTARIK EZ!

- ✓ **Charo Roman-en hilketa**: 2011ko uztailek lehen egunetan gertatu zen. Ordura arte Hernaniko mugimendu feministak herriak izan ohi ziren eraso sexistak salatzeko erantzun dinamika bat bazuen. Baina kasu hau bereziki aipatzea baloratu dugu, indarkeria sexistaren baitan feministok erabili ohi dugun izebergaren punta lazgarrienaren kasua izan genuelako Hernanin, erahilketa bat, alegia.
  Udal plenoak egindako gaitzespenaz gain, azpimarratzekoa da, momentu honetan hernaniarrek emandako erantzun masiboa.
- ✓ **Emakumeen Mundu Martxa (1): erahilketen protokoloa.** Aurretik aipatutako erailketa haren erantzuna indar handikoa izan arren, Emakumeen Mundu Martxako protokoloari jarraituaz, Euskal Herrian gertatzen diren hilketa guztien salaketa egin ohi dugu Hernanin. Halako hilketa baten aurrean Emakumeen Mundu martxako protokoloa aktibatzen da Euskal Herri osoan, eta prentsa notizia atera eta hurrengo egunean salaketa kontzentrazioak deitu ohi dira, Hernaniren kasuan, Plaza Berrin.

- ✓ **Indarkeria protokolo**a. Hernaniko udalak 2012an onartu zuen emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko udalerri-mailako lehen protokoloa. Protokolo honen helburu nagusia, indarkeria jasan duten emakume hernaniarrek infomaziorako, arreta sozial integralerako, babes juridiko eta polizialerako duten eskubidea bermatzea izan da, horretarako, ibilbide guztian zehar arreta ematen dieten eragileen arteko koordinazio eraginkorra lortuz. 2015 urtean protokolo hau ebaluatzeari ekin zaio, bertan eman zitezkeen hutsuneak identifikatu eta arestian aipaturiko erakundeeen arteko koordinazio egokirako neurriak adostuz. Prozesu honetan Hernaniko Osasun Zentroak, Ertzain Etxeak eta Hernaniko Udalak (Zerbitzu Sozialak, Udaltzaingoa eta Berdintasun Arloa) hartu dute parte. Hortaz, 2016 urtean onartuko da Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen arreta hobetzeko erakundeen arteko II. jarduera eta koordinazio protokoloa.



Halaber, Udaltzaingoarekin genero indarkeriaren ingurukoformazioa egingo da datozen hilabeetan.

- ✓ **Txotx garaiko eta jaietako kanpainak: erasoen protokoloa eta brigada feministak**

  Jaiak erasotzailen eta diskriminatzaileen aterpe bilakatzen dira, droga ezberdinen kontsumoaren justifikazio eta aitzakiapean jai eremu eta egunetan era ezberdinetako eraso sexistak sarriago gertatzen direlarik: irainak, mespretxuak, ukituak, bortxaketak… Norberak bere eremutik jarrera horiek saihesteko neurriak hartzea ezinbestekoa da.

  Hori dela eta Txotx garaian eta San Joan jaietan kanpaina bereziak jarri diran martxan azken urteetan eraso sexistak prebenitzeko asmoz. Jaietan jada 3 urte dira Txosna Batzordearekin batera txosna gunerako protokoloa martxan jarri zela.

  Txotx garaiari dagokionez, 2015ean tabernari eta sagardogileekin egoera eta jarrera sexistak identifikatu eta indarkeria mota ezberdinen aurrean nola jokatu argitzeko formazioa eskaini zitzaien; baita protokolo bat adostu ere, eraso sexistaren bat geratuz gero jarraitu beharreko pausuak adierazten zirenak. Protokolo hau taberna eta sagardotegi guztietan banatu eta azaldu zen; bestelako euskarriekin batera.

- ✓ **Sagar Moreen Iraultza:** 2015eko Martxoaren 14ean eraso sexistak salatzeko manifestazio-okupazioa burutu zen Hernanin,. Emakumeok jasaten ditugun erasoak salatzeko ekimena zen, baina ez da kasualitatea sagardotegi garaia aukeratu izana ekimen hau egiteko. Izan ere, sistema hetero-patriarkal honen ideologia gure baitan sartuta dugu eta aisialdian eta harremantzeko moduan ere erakusten ditu bere hatzaparrak. Jai giroan, taberna, txozna, sagardotegietan, kalean, normaltzat hartzen diren eraso sexista gehiegi gertatzen dira hainbat aitzaki tarteko hartuta (drogak, etab) eta nazkatuak geundela adierazi nahi izan genuen. Nazkatuak begirada lizunak aguantatu behar izateaz, nahi ez dugunean ukituak izateaz, piropo inbasiboak entzun behar izateaz (ez dugu besteek gure gorputzen inguruan zer pentsatzen duten jakin nahi, inork ez dizue iritzirik eskatu), ezetz esan eta zer esaten ari garen jakingo ez bagenu bezala tratatzeaz (ez, ez da eta lixto!) eta berdinarekin jarraitzeaz, serio hartuak ez izateaz, ondo pasatzen ari garenean besteentzako ari bagina bezala ulertzeaz (besteen desira piztu eta asetzeko), bultzatuak edo joak izateaz, jai guneetan espaziorik gabe geratzeaz, erasotzen gaituztenean epaituak izan eta denaren errudun eginarazteaz, bortxatuak izateaz.

- ✓ **Emakumeen Mundu Martxa (2): Hernanitik pasa zenekoa**

- ✓ **Autodefentsa tailerrak**

- ✓ **Tratu Onen Herria.** Proiektu honen helburua da tratu onak, parekidetasuna eta sexu aniztasuna sustatzea. Horixe baita, hain zuzen ere, indarkeriari eta bereziki emakumeen kontrako indarkeriari eraginkorki aurre egiteko bidea. Sexuen hezkuntzan txertatzen ditu elementu horiek, gorputza eta plazera norbera bizitzeko moduen erdigunean txertatuz, eta zaintzak baloratuz.



2008an hasi zen Udala Berdintasun Planaren ildoak jarraituz egitasmo honekin. Garai hartan, hezkuntza formalean hezkidetza landu eta emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa garatzeko asmoz hasi zen, beti ere fokoa eredu positiboetan jarrita. Urtez urte osatzen eta zabaltzen joan da. Gaur egun, Hernaniko ikastetxe guztietan ematen da Harremonak, eta ikasleez gain, irakasle eta gurasoengana ere hedatuz joan da, hezkuntza formalaren eremua gainditzeraino. Izan ere, tratu onen kultura hezkuntza komunitate osora hedatu beharra agerian geratu da: Hernani Tratu Onen herria izateko bidean, hainbat urrats eman dira 2012tik hona.

Herriko eragile eta talde ezberdinekin lan egin da, eta baita udaleko sail ezberdinekin ere. Herrian hainbat modutan eragin duten ikasle talde eragileak ere sortu dira (katxazarra, liletak...) Harremonak eta Tratu Onen herria egitasmoak izaera integrala du: bermatu nahi du esparru guztietan norabide berean lan egingo dela, eta gazteek ikusiko dutela gai honek guztiei axola diela. Aukera ematen die ikasle, guraso, irakasle, hezitzaile, herri mugimendu eta udal erakundeei hausnartzeko zein ekarpen egin diezaioketen beraiek hezkidetzari, sexuen hezkuntzari eta tratu onen sareari. Bakoitzak bere hausnarketa propioak landu eta gero, gainontzekoekin partekatuz, herrigintzan jauzi kualitatiboa eman dezakeen sarea osatzea da epe luzeko asmoa

- ✓ **Beldur Barik.** Beldur Barik EAEko instituzioek elkarlanean bultzatuta indarkeria sexista prebenitzeko gazteei zuzendutako programa da, eta bere helburua da, gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea jendarte eraldaketan laguntzeko. Alegia, Beldur Barik jarrera bultzatzea. Horretara ikus-entzunezko lehiaketa antolatzen da gazteentzako hainbat gairen inguruan hausnartu eta euren jarrera adierazteko (maitasun erromantikoa, gorputzak, aniztasun sexuala, autodefentsa feminista...) Aurten lehen aldiz modu koordinatuan hasi gara lanean Hernanin, herriko ikastetxe eta eragile ezberdinekin